



### Ingurune naturala

Zaragozak era askotako paisaiak ditu. Ebro ibaia funtsezkoa da kontraste handiak dituen lurralde honetan, non aurrepiriniar baso hostotsuekin batera, basamortuaren pareko hedadura zabalak dauden, aldiari behin ibai ibarretako berdetasunak alaituak.

Dehesa del Moncayoko Parke Naturala, Bardeetako Biosferaren Mundu Erreserba, Gallocantako aintzira (hegaztien babesgunea, atsedenekua eta habia egiteko ingurunea) eta Lomaza de Belchiteko eta Monegroetako estepa itxurako lurraldeak, eredu bakarrak Europako kliman eta paisaian.

Haien bakantasunari, Aurrepirineoa eta iberiar Piedemontea delakoa batzen zaizkie, non eremu lauak eta mendiak modu berezian egiten duten bat, eta baita paraje ikusgarrienak ere, non ibaiaren ibilbideak galatxoak, arroilak eta mendarteak marrazten dituen, edo atsedean hartzen duen aintzira naturalak osatzeko edo arrantzarako eta ur-kiroletarako egokiak diren urtegi zabalak egiteko.

### Bainuetxeak eta Piedrako Monasterioa

Zaragozako probintziak ur termalak eskaintzen dituzten hainbat zentro ditu, batez ere Alhama de Aragon, Paracuellos de Jiloca eta Jaraban, Calatayudeko eskualdean kokatuak.

Edertasun handiko ingurune natural batean hainbat etxe aurkitzen ditugu, hemeretzigarren mendeko bainuetxeen giro lasaia eta abegitsuaz gainera, instalazio punta-puntakoak eskaintzen dituztenak; bisitariak hainbat eskaintza aurkituko dituzte bainuetxeetan, erabilera

publikoak diren bertako ur mineral sendagarriez gozatzeko. Bainuetxe hauen inguruetan, Nuevalosen, probintziako harribitxi preziatuenetako bat dago, Piedrako Monasterioaren Parke Naturala. Piedra ibaiaren ur-lasterrak harkaitzak landu ditu milurtekoetan zehar, eta aintzira, haizulo eta ur-jausi ugari sortu ditu. Haien ondoan, ur-bazterreko baso trinkoak daude eta ekosistema berezi bat garatu da, aniztasun biologiko handia duena.

### Gastronomia

Zaragozako probintziako paisaia eta klima aberastasunak, zibilizazioen elkargune gisa izan duen ibilbidetik sortutako kultur ondarearekin batera, hainbat sukaldaritzako tradizio sortu ditu.

Zaragozan gastronomiaz hitz egitea bere baratzetako fruta eta barazki paregabeek hitz egitea da, eta gainera, arkumeaz eta ehizaz, nazioartean ospea duten olio

ezagunak, gazta gozo eta hestebeteek, berezko nortasuna duen gozogintzaz eta Cariñena, Borja eta Calatayudeko eskualdeetan ondutako ardo bikainez.

Kalitate goreneko osagaiak, mediterranearen dietan txertatuak, osasuntsua eta askotarikoa, beren balioa frogatzen dutenak bai prestakin tradizionaletan bai goi sukaldaritzako plater berrienetan ere.

ESPAÑA **ZARAGOZA** probintzia

<http://zaragozaturismo.dpz.es>

Patronato de Turismo      Diputación de Zaragoza

Plaza de España, 2. 50071 Zaragoza. Tel. 00 34 976 212 032

*Zaragoza, probintzia*



*Bere kokaleku geografikoari esker, Zaragoza igarobidea da eta izan da betidanik. Europa kontinentalaren eta Iberiar Penintsularen arteko bidegurutze naturala, baita Mediterraneoaren, Gaztelako goi ordokiaren eta Kantauri itsasertzaren artekoa ere, bere historian zehar kulturen eta zibilizazioen elkargune nabarmena izan da.*

*17.194 km<sup>2</sup>-ko azalerarekin, biztanle gehienek, milioi bat inguru, hiriburuan dute bizilekua, gaur egun, industriaren eta merkataritzaren gune garrantzitsua. Zaragozaz gainera, neurriari eta ondare historikoari dagokienez garrantzia duten beste hiri batzuk ere aipa litezke, hala nola Calatayud, Tarazona, Ejea de los Caballeros edo Caspe.*



## Erdi Aroko harrizko arkitektura

Erdi Aroan, Islamak atzera egin ahala, kristau konkistatzaileak lurralde berriak bereganatzeko beharrea aurkitu ziren, fundazio erlijioso eta hiriguneen bidez. Aldi hartan hedatu zen arte erromanikoa, gizarte feudal baten adierazpide plastikoa; haren ezaugarri formalak, hain zuzen, Europan zuten jatorria.

Zaragozako probintzian arte higikunde horren adibide ugariak daude: ikusgarrienak Daroca hirian biltzen dira eta, batez ere, Altas Cinco Villasen, Sos del Rey Catolicoko eta Uncastilloko enklabe nagusiekin.

Erdi Aroko beste adierazpide bat Zaragozako lurretan zistertarra da, kristautasun primitiboaren soiltasunera itzuli nahi izan zuen lekaide ordena baten hedapenaren emaitza. Gotikoa ekarriko zuen estilo horretan eraiki zituzten Veruelako monasterioa, Moncayoren hegaletan, Piedrakoa, Calatayudeko aldirietan, eta Ruedakoa, Ebroren ibilbidearen erdian.



## Mudejarra

Kristau konkistaren ondoren, musulman askok Aragoiko erresuman bizitzen jarraitu zuten, eta beren erlijioa eta ohiturak iraunarazi zituzten. Eraikuntzarekin lotutako ogibideak zituztenek beren jakituria jarri zuten nagusiak ziren botere berrien zerbitzura, bereziki Ebroren ertzetan eta hegoaldeko ibaiadarretan zeuden herrietan, baita Somontano del Moncayon ere. Horrela sortu zen mudejar artea, Espainia mairuko lan egiteko ikusmoldeak, formak eta sistemak kristau eraikinen beharretara eta garai bakoitzeko modetara egokitu zituen.



XIII. eta XVII. mende bitartean, eraikuntza eredu bakanak garatu zituzten, hala nola eliza gotorlekuak eta minarete egiturako dorreak, baita ezaugarri berekiak zituen apaindura molde aberatsa ere, adreilua, igeltsua, zura eta zeramika nahasketan oinarritua.

2001ean, UNESCOk bere edertasuna eta handitasuna aitortu zuen, bizikidetzarako eta kulturen topagunerako adibide gisa duen balioaz gainera, Aragoiko mudejar artearen multzo horri Gizateriaren Ondare maila eman zionean.



## Sefarad

1492an, Errege-erregina Katolikoek juduak egozte erabaki zuten dekretu bidez, Antzinetatik Iberiar Penintsulan bizilekua hartu zuen gizataldea. Egungo Zaragozako probintzian aberatsa bezain heterogeneoa da mendeetan zehar izandako egonaldiak utzitako arrastoa.

Zaragoza hiriburuak, judaismoaren epizentroa Aragoi, aitzindaritza espiritual eztabaida ezina izan zuen aldi askotan Sefaraden, bere taifako errege-erregina musulmanen babesean, baita ondoren etorri ziren kristau errege-erreginen babesean ere.



## Goya eta Muel

Francisco de Goya y Lucientes, margolaritzaren historiako eragin handiko pertsonaia, Fuendetodosen jaio zen, Zaragozatik hurbil dagoen herrixkan. Margolari gisa trebatu zen Aragoiko hiriburuan eta han jaso zituen bere lehen enkarguak. Pilarreko basilikan bere freskoek izan zuten arrakastak kontratu berriak ekarri zizkion.

Muel, Remolinos, Calatayud eta Aula Deiko kartusiak Goyaren gaztaroko lanak dituzte. Baina horiek ez dira adibide bakarrak probintzian: heldutasuneko margolanak dituzte Zaragozako Museoan eta Camon Aznar Museoan, berriz, grabatu serie osoak dituzte.



Bestalde, bere obra grafikoa miretsi daiteke haren jaioterrian, non familiaren etxea gordetzen den, eta hainbat lantegi eta erakusketa areto ireki diren.

Fuendetodoseko bidaia osatu daiteke hurbil dagoen Muelera ikustaldi bat eginez, gune buztingile dokumentatua XV. mendearen hondarretik. Han, Goyaren freskoek gainera, Zeramikako Lantegi Eskola dago. Hura sortzean, Zaragozako Aldundiak tokiko buztingintzaren tradizioa berreskuratu nahi izan zuen, non hondo zuriaren gainean marrazki urdinak dituzten piezak nabarmentzen diren, baita eskulagintza horretako teknikak hedatu ere.

